



Eusko Jaurlaritzarako  
HAUTESKUNDEAK  
2024-04-21

## — EIBARKO EMAITZAK —

**EAJ-PNVK BAINO 339 ETA PSE-EEK BAINO 1.197 BOTO GEHIAGOREKIN**

# EH Bildu nagusi lehenengo aldiz

**E**zker abertzaleak gurean orain arte inoiz lortu gabekoa eskuratu zuen domekako bozetan, Eibarren lehen indarra izatea lortu baitzuen. Eusko Jaurlaritzarako hauteskunde hauetan 4.145 boto jaso zituen atzokoa, orain arte horrelakoetan EAJ-PNV nagusi izan denari aurrea hartuz. Azkenekoei errepasoa eginez, jeltzaleak Eibarren nagusi izan ziren 2020an, 2016an eta 2012an: orain dela hamabi urte PSE-EE bigarren izan zen bezala, beste bietan EH Bildu kokatu zen postu horretan, sozialistak hirugarrenera bidalita. Oraingoan, beste postu bat irabazi eta lehen indarra bilakatu dira; ez hori bakarrik, sozialistekiko aldea ere handituz. Hauteskunde guztiak desberdinak dira, jakina, eta argi dago PSE-EEK udalakoetan izaten duen nagusitasuna ez dela inondik ere ikusten Jaurlaritzarakoetan. EAJ-PNVk 3.806 boto lortu ditu eta PSE-EEK 2.948. Aipatutako hiru partidu horien atzetik geratu dira PP, 737 botorekin, eta Sumar eta Elkarrekin Podemos, bakoitza bere aldetik aurkeztu direnak hauteskunde hauetan. Lehia horretan, izatekotan, Sumar nagusitu zaio Podemosi, ia ehun botorengatik. Vox-ek, azkenik, 170 boto jaso ditu.



Argazkian erakusten duten bezala, EH Bildukoek oso pozik amaitu zuten eguna, ikusita emaitzetan izandako gorakada.

### udal hauteskundeak izanez gero ZINEGOTZI KOPURUA

EH Bildu.....	8
EAJ-PNV.....	7
PSE-EE.....	5
PP.....	1

Esan bezala, hauteskunde guztiak desberdinak dira, baina aprobetxatu nahi izan dugu, hipotetikoki bada ere, atzoko bozak udal hauteskundetu eta zinegotzi kopurua zelan aterako litzatekeen kontuak egiteko. Aldamenean duzue bi-txekeria hori: EH Bildu bi irabaziko litzuzke eta EAJ-PNVk beste bat, sozialisten kalterako. Horiek hiru galduko litzuzkete, eta baita Elkarrekin Podemos ere dutena, PP-ren eskuetara pasatzeko zinegotzi hori; badira urte batzuk popularrek ez dutela ordezkariarik udal zinegotzien artean.

Jendearen parte-hartzeari dagokionez, oraingoan %62,37ra heldu da kopuru ho-

ri, orain dela lau urtekoa askoagatik gaintuz. Jakina, orduko egoera oso berezia izan zen, pandemian geundelako, eta %46tik ez ginelako pasatu, inoiz izan den tristenetakoa. 2016ko hauteskundeetara gaintuz dugu, gutxiagatik (orduan %61era iritsi zen), baina 2012an %66kora ere heldu ginen. Iazko Udalerako eta Batzar Nagusietarako Hauteskundeetara datuekin parekatuz, oraingoan parte-hartze handiagoa izan dugu (%60,43-ekoa izan zen ordukoa), zertxobait behintzat. Zentsoa ere nahiko antzerakoa izan da: iazko 20.554tik atzoko 20.557ra. Baina boto-emaitzen kopurua 12.421etik

12.821era pasatu da, justu 400 eibartar gehiago izan ziren atzokoa botoa ematen iaz baino.

Oraingoan dela lau urteko hauteskundeekin parekatuz, ahaztu barik orduan askoz gutxiagok eman zutela botoa, eta beti ere portzentaieie erreparatuta, EH Bildu orduko %30etik, oraingo %32ra pasatu da; EAJ-PNV orduko 32tik gaurko %30era; PSE-EE orduko %21etik oraingo %23ra pasatu da; PP orduko %4tik gaur egungo %6ra pasatu da; eta, azkenik, orduan %7 lortu zuen Elkarrekin Podemos orain %2an geratu da. Sumar orain dela lau urte ez zegoen.



20 urte baino gehiago zurekin.

Profesional talde handi bat zure irribarra zaintzen.

  
**bista eder**  
clinica dental - hortz klinika

Deitu | 943 70 00 82  
bista eder, 19 20600 eibar  
www.bistaeder.es



# AUZORIK AUZO

## HAUTESKUNDE EGOITZETAKO BOTOAK







	EH Bildu	EAJ-PNV	PSE-EE	PP	Sumar	Podemos	Vox
<b>Amaña</b>	<b>385</b> (%25)	<b>310</b> (%20)	<b>530</b> (%35)	<b>127</b> (%8)	<b>54</b> (%4)	<b>50</b> (%3)	<b>24</b> (%2)
<b>Ipurua</b>	<b>584</b> (%38)	<b>411</b> (%26)	<b>350</b> (%23)	<b>66</b> (%4)	<b>44</b> (%3)	<b>33</b> (%3)	<b>22</b> (%1)
<b>Urki</b>	<b>399</b> (%33)	<b>262</b> (%22)	<b>344</b> (%28)	<b>76</b> (%6)	<b>38</b> (%3)	<b>32</b> (%3)	<b>23</b> (%2)
<b>Udaletxea</b>	<b>911</b> (%34)	<b>918</b> (%34)	<b>533</b> (%20)	<b>114</b> (%4)	<b>85</b> (%3)	<b>60</b> (%3)	<b>28</b> (%1)
<b>Errebal</b>	<b>1.189</b> (%33)	<b>1.236</b> (%34)	<b>678</b> (%19)	<b>193</b> (%5)	<b>117</b> (%3)	<b>81</b> (%3)	<b>47</b> (%1)
<b>Urkizu</b>	<b>677</b> (%31)	<b>669</b> (%30)	<b>513</b> (%23)	<b>161</b> (%7)	<b>48</b> (%2)	<b>41</b> (%2)	<b>26</b> (%1)
<b>GUZTIRA</b>	<b>4.145</b> (%32)	<b>3.806</b> (%30)	<b>2.948</b> (%23)	<b>737</b> (%6)	<b>386</b> (%3)	<b>297</b> (%2)	<b>170</b> (%1)

ZENTSOA: 20.557

BOTO-EMAILEAK: 12.821

PARTE-HARTZEA: %62'37

ABSTENTZIOA: %37'63



**Ipurua, Urki eta Urkizu  
EH Bildurentzat;  
Udaletxea eta Errebal  
EAJ-PNVrentzat;  
Amaña PSE-EErentzat**

Auzorik-auzoko datuek erakusten digutenez, oraingoan denetarik emaitzak izan ditugu, beste inoiz baino askotarikoagoak. Nonbait al-daketarik ez badago, hori Amañako kasuan da, PSE-EE oraingoan ere nagusi izan delako bertan (hori bai, Torrekuan EH Bilduk irabazi du). EAJ-PNV herriaren erdialdean izan da lehen indarra, gutxi-gatik izan bada ere: Udaletxean zazpi botoren alde atera dio EH Bilduri, eta Errebalen 47koa; PSE-EE askoz urrutirago geratu da kasu bietan. EH Bilduk, bestalde, zortzi boto besterik ez dio kendu EAJ-PNVri Urkizun, baina berria da guztiz ezker abertzaleak irabaztea herriaren behealdean. Ipuruan nahiko ondo moldatzen da hauteskunde gehienetan, eta oraingoan eutsi dio jarrera horri, ia 200 botoren alde kenduz EAJ-PNVri (173, hain zuzen) eta 234 aterata PSE-EEri. Eta Urkin ere ezustea eman du ezker abertzaleak, lehenengoz gailenduta PSE-EEri, 55 boto gehiagorekin.

Bestalde, auzoek ordezkatzeko dutenari erreparaturuz, Errebalgo hauteslekuak du ordezkaritza ahalmen handiena: hautesle-eroldaren %28ak bertan ematen duelako botoa. Pisu handia dute baita Udaletxeak eta Urkizuk gure herriko boto-emaitzen pisuan, %21eko eta %17ko portzentaia-rekin, hurrenez hurren. Amañako (Torrekua ere barne) eta Ipuruako hautesleketan herri guztia-ren %12aren bueltan dago ordezkaturata egoitza bakoitzean. Azkenik, Urkin Eibarko boto-emaitzen %9ak ematen du botoa.



**EMAN CONSULTING, S.L.**

J. Etxeberria, 5 - solairuartera **EIBAR**



Tf: 943 200 336 / 943 200 069 Fax: 943 200 342

emansl@emansl.es

### • AHOLKULARITZA

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa

### • ASEGURU PRIBATUAK



Eibarko tartaren zatirik handiena EH Bilduk hartu du, %32rekin. EAJ-PNV, %30ekin, eta PSE-EE, %23rekin, jarraitzen diote. PP, Sumar eta Podemos doaz ondoren.

Atzo eta orain dela lau urteko Jaurilaritzarako hauteskundearen arteko alderaketa, portzentaietan, Eibarren jasotako boto kopuruari dagokionez. EH Bildu, PSE-EE, PP, Sumar eta Vox-ek gora egin dute; EAJ-PNV eta Elkarrekin Podemos-ek behera.

## AZKEN ORDUKO BALORAZIOAK

Zelan ikusi duzu kanpaina? Zelan baloratzen dituzu emaitzak?



**Arantza Mata**  
EH Bildu

Eibarren, eta bereziki Euskal Autonomia Erkidegoan, zenbat jende hartu duen parte kanpaina ikaragarria izan da. EH Bilduren komunitatea geroz eta handiagoa da, eta hori eskertzekoa da; zenbat ahaldu eta zenbat artekari egon diren lanean ikusi besterik ez dago. Oso pozik gaude emaitzekin, eskerrik asko bozkatu gaituztenei. Lehen aldiz lortu dugu lau mila bototik gora izatea, Legebiltzarrerako hauteskunde batzuetan Eibarren irabazten dugun lehen aldia da, eta bigarren indarrarekiko aldea ere nabarmena da. Eibarren emaitzak oso oso onak dira.



**Josu Mendicutte**  
EAJ-PNV

Hauteskunde eguna normaltasunez joan da, ez da arazorik egon eta parte-hartzea duina izan dela uste dut. Jaitsi egingo ginela esaten zuten eta, kontrara, botoetan igo egin gara, Euskadin zein Eibarren. Bi indar bakarrak gaude Eibarren botoen %30etik gora ditugunak, eta bigarren geratu gara, bi puntura. Hauteskunde hauek nola aurkezten ziren ikusita, herritarrak mugitu egin direla uste dugu, eta emaitza ona dela. Ikusita orain dela lau urtetik hona jende gehiago mugitzeko gai izan garela, jende horrekin oso eskertuta gaude.



**Ana Telleria**  
PSE-EE

Gure aldetik, Eibarren, eta gainera Eneko Andueza eibartarra izanik, oso giro ona ikusi dugu. Eta jendearen jarrera gurekiko zein izan den ikustea pozgarria izan da guretzat. Emaitzei begira, eta orain dela lau urteko emaitzekin alderatuta, boto guztiak kontatzen amaitzen ari diren honetan, badirudi orduan izandako emaitzak pixka bat hobetuko ditugula. Orduan, alde horretatik pozik gaude, hirugarren indarra gara. Hauteskunde bakoitza ezberdina izaten da, baina espero genuena bete egin da.



**Isabel Fernandez**  
Podemos

Izan ditugun emaitza txar horiek onartu egiten ditugu, gure gain hartzen dugu erantzukizuna. Baina gure proiektu hau herri honen etorkizunerako oso beharrezkoa dela uste dugu. Bideak aurrera jarraitzen du udallean, Batzar Nagusietan, erakunde horietan herritarren eskubideak defendatzeko gure botoa garrantzitsua baita. Gure espazioa indartzea ezinbestekoa da, txandakatzea eman dadin. Eskerrik asko gure hautagai guztiei, baita gure militantzia indartsu eta ausartari, horiek baitira Elkarrekin Podemosen bihotza.

### ARGITARATZAILEA:

...eta kitto!  
Euskara Elkarte  
Urkizu, 11 - solairuartea  
20600 - EIBAR  
Tf: 943-206776 /  
943-200918  
www.etakitto.eus

**BABESLEA:**  
Eibarko Udala

**ADMINISTRAZIOA:**  
Marisol Uriarte

**LAN-TALDEA:**  
Ana Aizpurua  
Ekhi Belar

Julian Fernandez  
Silbia Hernandez  
Ainara Labado  
Yanire Sagredo

**DISEINUA/MAKETAZIOA:**  
Jose Luis Gorostegi

**PUBLIZITATEA:**  
Belen Ulazia

**TIRADA:**  
4.500 ale

**BANAKETA:**  
Idoia Labado  
Ane Lizarralde

**INPRIMATEGIA:**  
Gertu koop. (Oñati)

**COPYRIGHT-A:**  
...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:**  
SS/430/92

ISSN: 1132-1679



Mahaia on line  
eta Instagram  
bidez erreserbatu  
dezakezu.



Toribio Etxebarria, 21  
943 20 70 07  
www.ongietorribar.com



# EUSKO LEGEBILTZAR BERRIA



27



27



12



7



1



1

## lehen (2020)

EAJ-PNV	31
EH Bildu	21
PSE-EE	10
Podemos	6
PP-C's	6
Vox	1

### Gipuzkoan

EAJ-PNV	10
EH Bildu	9
PSE-EE	3
Podemos	2
PP-C's	1

### Bizkaian

EAJ-PNV	12
EH Bildu	6
PSE-EE	3
Podemos	2
PP-C's	2

### Araban

EAJ-PNV	9
EH Bildu	6
PSE-EE	4
PP-C's	3
Podemos	2
Vox	1

## orain (2024)

EAJ-PNV	27
EH Bildu	27
PSE-EE	12
PP	7
Sumar	1
Vox	1

### Gipuzkoan

EH Bildu	11
EAJ-PNV	9
PSE-EE	4
PP	1

### Bizkaian

EAJ-PNV	11
EH Bildu	8
PSE-EE	4
PP	2

### Araban

EH Bildu	8
EAJ-PNV	7
PSE-EE	4
PP	4
Sumar	1
Vox	1



**B**ada aldaketarik Eusko Jaurlaritza berrian. Orain arte funtzionatu duenarekin alderatuta, Podemosek ziotuen sei legebiltzakideak galdu ditu, justu EH Bilduk irabazi dituenak. Eta EAJ-PNVk galdu dituen laurak honako eskuetara joan dira: bi PSE-EEra, eta bana PPra eta lehenengoz aurkeztu den Sumar-era.

Probintziaka begiratuta, EH Bildu Gipuzkoan eta Araban nagusitu da, Bizkaian EAJ-PNVk lehenengo jarraitzen duen bitartean. Ordezkariei begira, Gipuzkoan eta Bizkaian bakarrik lau alderdik lortu dituzte legebiltzarkideak izatea; Araban askoz banatuago dago kontua, seira iritsiz ordezkaritza hori. Sumar eta Vox alderdietako

ordezkari bakarrek Araban eskuratu dituzte eserlekuak.

Hemendik aurrerako gobernua osatzeko orain arte egon den EAJ-PNV eta PSE-EEren artekoa osatzeko zenbakiek ematen dute beste behin. 38 behar dira horretarako, eta bien artean 39ra ere heltzen dira. Oraingoan eserleku kopuru bera atera dute EAJ-PNVk eta EH Bilduk eta, guztira, sei alderdiko Legebiltzarra izango da hemendik aurrerakoa: alderdi abertzaleekin batera, estatuko bi handienak izango dira (PSOE eta PP), eta aipatutako Sumar eta Vox alderdietako ordezkari bakarrek osatuko dute Legebiltzarra.

## EH Bildu nagusitu da Debabarrenean

Debabarrenean EH Bildu alderdiak eskuratu ditu boto gehien Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan. Eskualdeko zortzi herrietako datuak hartuta, hauek izan dira emaitzak: EH Bildu, 12.211 boto (%35,29); EAJ-PNV, 11.327 (%32,73); PSE-EE, 6.072 (%17,55); PP,

2.004 (%5,79); Sumar, 1.078 (%3,12); Elkarrekin Podemos, 737 (%2,13) eta Vox, 440 (%1,27). Emaitza horiekin, Eibartik aparte, Deban, Mallabian, Mendaron, Mutrikun eta Soraluzen EH Bildu izan da alderdi bozkatuena, eta Elgoibarren eta Ermuan EAJ-PNV.



Gurean erdiak baino gehiagok 13:00etarako eman dute botoa; ordu horretarako boto-emaielen %30 hauteslekuetatik pasatuta zeuden.